7115

AGINDUA, 2008ko azaroaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bitartez, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko NETs laguntza programa arautzen da.

Uztailaren 8ko 130/2008 Dekretuak eskumena ematen dio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari haren eskumeneko eremuko laguntza-programak aldatu eta indargabetzeko, eta, hortaz, NETs izeneko laguntza-programa aldatzeko Agindua ematea ahalbidetzen du, baita programa hori arautzen zuen 2005eko ekainaren 27ko Agindua indargabetzea ere.

Agindu honen bitartez, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko NETs laguntza-programa aldatzen da. FEDER Eskualde Garapeneko Europako Funtsak laguntzen du programa horren finantziazioan.

Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako politikak ezartzen duenez, bere jardun-eremuak garatzeko, zenbait mekanismo, tresna eta jardun lagungarri espezifiko jarri behar dira abian, hain zuzen ere 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planean bilduta daudenak. Plan horren 9.4. 1 idatz-zatian, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak sortzeko NETs laguntza-programaren inguruko ekimena jaso da.

2006ko abenduaren 30eko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (2006 / C 323 /01) argitaratu ondoren, 2007ko urtarrilaren 1ean Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparrua jarri zen indarrean, ikerketako eta garapeneko Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Zehaztapenak ordezteko.

Horren ondorioz, NETs programa berritu behar da I+G+Bko Erkidegoko Esparru horren indarreko erkidegoko araudira egokitzeko, eta, hortaz, laguntzen intentsitateak Europako araudi horretara egokitu behar dira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan aplikatzen diren Foru Arau jakin batzuetatik eratortzen diren eta behar bezala ordaindu ez diren zerga-laguntzak eskatu dituzten enpresak programa honen laguntza-erregimenetik kanpo utzi behar dira, eta abar.

Gainera, erreforma horren eraginez, diru-laguntzak eskatzeko espedienteak ebazteko sistema aldatu da. Orain artean prozesu sekuentziala zegoen indarrean, eta espedienteak iritsi ahala ebazten ziren; hemendik aurrera, ordea, lehiaketan oinarritutako diru-laguntza sistema jarriko da abian.

Agindu honetan ezarritako laguntza-erregimena Europar Batasuneko Konkurrentziako Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenaren araberakoa da; txosten hori, Europako Batzordeak 2008ko uztailaren 25ean

7115

ORDEN de 27 de noviembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de lanzamiento de empresas de base científica y tecnológica. Programa NETs.

El Decreto 130/2008, de 8 de julio, habilita a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo para la modificación y derogación de programas de ayudas en el ámbito de su competencia, y posibilita en consecuencia la realización de una Orden que modifique el programa de ayudas denominado NETs, derogando a su vez la Orden de 27 de junio de 2005 que regulaba dicho programa.

Mediante la presente Orden, se regula el Programa NETs de ayudas para apoyar la realización de proyectos de lanzamiento de empresas de base científico-tecnológica, programa a cuya financiación contribuye el fondo europeo de desarrollo regional (FEDER).

La política de Ciencia, Tecnología e Innovación del Gobierno Vasco estipula, que el desarrollo de sus ámbitos de actuación se materialice a través de la puesta en marcha de una serie de mecanismos, instrumentos y actuaciones específicas de apoyo, que vienen enmarcadas en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010 y en cuyo apartado 9.4.1 viene recogida la iniciativa sobre el programa NETs de apoyo a la creación de empresas de base científica y tecnológica.

La entrada en vigor el 1 de enero de 2007 del Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea (2006 / C 323 /01) de 30 de diciembre de 2006, sustituye al Encuadramiento Comunitario sobre Ayudas de Estado de investigación y desarrollo.

En consecuencia, es necesario realizar la reforma del programa NETs para su adecuación a la normativa comunitaria vigente del mencionado Marco Comunitario de I+D+i y por tanto adecuar las intensidades de ayudas a dicha normativa europea, proceder a excluir del régimen de ayudas de este programa a las empresas que se hubieren acogido a las ayudas fiscales derivadas de determinadas Normas Forales aplicadas en los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y que no hubiesen sido debidamente reembolsadas, etc.

Asimismo, en esta reforma se cambia el sistema de resolución de los expedientes de solicitud de las subvenciones, de forma que pasa de un proceso secuencial ordenado en función del orden de llegada de dichos expedientes, a un sistema de subvenciones en concurrencia competitiva.

El régimen de ayudas establecido en esta Orden es conforme al señalado en el informe adoptado por la Dirección General de Competencia de la Comisión Europea y que se contempla en la decisión de «Ayuda estatal

onarturiko «194/2008 estatuko laguntzaren» erabakian jaso da [C(2008)4042].

Azkenik, aipatzekoa da NETs programa aldatzeko Agindu hau 2005eko ekainaren 27ko Aginduaren aldatu gabeko zatiaren testu bateratu gisa aurkeztu dela, erreformari dagokion testua erantsita, NETs programa hori hobeto uler dadin errazteko.

Horren ondorioz,

ERABAKI DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

Agindu honen xedea ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueretarako laguntza-erregimena garatzea da, Oinarri Zientifiko eta Teknologikoa duten Enpresa Berriak Merkaturatzeko Proiektuak egiteko laguntza-programa baten bitartez.

***2. artikulua.–*** Denbora-eremua.

Laguntza-programa hau 2013ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako estatuko laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruko (EBAO, C 323, 2006-12-30) 10.3. puntuan xedatutakoa aplikatuz (Ikus II. eranskina).

***3. artikulua.–*** Diru-baliabideak.

1. artikuluaren xedera bideratutako diru-baliabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan NETs programarako esleituriko aurrekontu-kredituetatik aterako dira, eta FEDER Eskualde Grapeneko Europako Funtsak ere laguntza eskainiko du programa finantzatzerakoan. Aurrekontu-ekitaldiaren barruan emateko diren laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aurrekontuetan esleitutakoa edo esleitutakoa eguneratzetik sortutakoa, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lortzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki, eta horiei buruzko ebazpena eman aurretik. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri jakinarazi behar da Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen Ebazpenaren bidez.

***4. artikulua.–*** Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak.

1.– Erregimen honen helburua laguntzak ematea da, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bitartez, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berriak merkaturatzen laguntzeko.

2.– Diru-laguntzak lortu nahi dituzten proiektuetan honako hau barne hartu behar da: agindu honen 6. artikuluan definitutako I+G+B jarduera sorta koherentea, merkatura daitekeen ezagutza erabiltzearren edo sortzearren, honako elementu hauek uztartuko dituzten enpresa berriak sortze aldera:

a) Jakintza zientifiko eta teknologiko handia eskatzen duten produktuekin eta zerbitzuekin jarduerak edo merkataritza garatzea;

N 194/2008» aprobada por la Comisión Europea el 25 de julio de 2008 [C(2008)4042].

Por último, señalar que esta Orden de reforma del programa NETs se presenta como texto refundido de la parte no reformada de la Orden de 27 de junio de 2005 con el texto de la reforma correspondiente, para facilitar una mejor comprensión de este programa NETs.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

La presente Orden tiene como objeto el desarrollo del régimen de ayudas a las actividades de investigación, desarrollo e innovación tecnológica, mediante un programa de apoyo a la realización de Proyectos de Lanzamiento de Nuevas Empresas de Base Científica y Tecnológica.

***Artículo 2.–*** Ámbito temporal.

El presente programa de ayudas estará en vigor hasta el 31 de diciembre de 2013, en aplicación de lo dispuesto en el punto 10.3. del Marco Comunitario de ayudas estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación (DOUE, C 323, 30-12-2006) (Ver anexo II).

***Artículo 3.–*** Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo 1 procederán, de los correspondientes créditos presupuestarios consignados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el programa NETs, y también contribuirá a la financiación de este programa el fondo europeo de financiación regional (Fondos FEDER). El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente y con carácter previo a la resolución de las mismas. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

***Artículo 4.–*** Proyectos subvencionables.

1.– El presente régimen tiene por objeto otorgar ayudas, a través de subvenciones no reintegrables, para apoyar el lanzamiento de nuevas empresas de base científica y tecnológica.

2.– Los proyectos que pretendan acceder a las ayudas deben incluir un conjunto coherente de actividades de I+D+i, definidas en el artículo 6 de la presente Orden, claramente orientadas al uso o la generación de conocimiento comercializable a fin de crear nuevas empresas que combinen de forma suficiente los siguientes elementos:

a) Desarrollo de actividades o comercio con productos y servicios que impliquen un alto nivel de conocimiento científico y tecnológico;

b) I+G+Bko jardueren garatze-maila handia;

c) Jabetza intelektualaren eskubideak baliatzea, enpresak berak sortuak edo lizentzia esklusiboen bitartez erosiak, negozioan gakoa izango den lehiakortasun-abantaila gisa;

d) Kalifikazio handiko langile zientifikoek eta teknologikoek enpresaren garapenean aktiboki parte hartzea.

3.– Diru-laguntzetatik at geratuko dira honako hauek: produktuetan, produkzioko lerroetan eta prozesuetan eta badiren zerbitzuetan egindako aldizkako aldaketa arruntak, eta bestelako eragiketa arruntak.

***5. artikulua.***– Proiektu motak.

Banaka edo bi onuradun edo gehiagoren artean lankidetzan egin daitezke diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak. Lehiakortasuna murrizten duten praktikak proiektuetan barne hartzea debekatua dago, EBko Tratatuaren 85. eta 86. artikuluei jarraiki.

***6. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Agindu honetan arautako diru-laguntzak jaso ditzakete deialdi bakoitzaren ekitaldian gauzatzen edo garatzen diren jarduerek edo ekintzek.

Diru-laguntza jaso dezaketen I+G+Bko jardueren artean, honako hauek hauta daitezke:

a) Industria-ikerketako proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.

b) Industriako ikerketa-proiektuak.

c) Garapen esperimentaleko -proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.

d) Garapen esperimentaleko proiektuak.

Jarduera horietan honako hauek barne hartuko dira: enpresa berria merkaturatzeko lan-plangintzaren definizioa eta aurrekontua.

Agindu honen xedeetarako, Ikerketa Industrialaren definizioa Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruaren (2006 / C 323/ 01) 2.2 puntuaren f) idatz-zatiaren definizioari lotzen zaio. Garapen Esperimentalaren definizioa, berriz, Erkidegoko Esparru horren 2.2 puntuaren g) idatz-zatian dator.

***7. artikulua.***– Onuradunak

1.– Honako hauek izan daitezke Agindu honetan bildutako diru-laguntzen onuradunak:

a) Enpresak: enpresa handiak edo ETEak. 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen Gomendioari jarraiki (2005eko urtarrilaren 1etik aurrera dago indarrean), (2003-05-20ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala L-124), honako hauek joko dira ETEtzat: 250 enplegatu baino gutxiago dituzten enpresa txikiak eta ertainak, eta

b) Desarrollo de un nivel elevado de actividades de I+D+i;

c) Utilización de derechos de la propiedad intelectual, ya sean generados por la misma empresa o adquiridos mediante licencias en exclusiva, como ventaja competitiva clave en el negocio;

d) Participación activa en el desarrollo de la empresa de personal científico y tecnológico altamente cualificado.

3.– Quedarán excluidas de las subvenciones las modificaciones periódicas normales de productos, líneas y procesos de producción, servicios existentes y otras operaciones corrientes.

***Artículo 5.***– Tipos de proyectos.

La realización de los proyectos subvencionables podrán realizarse de forma individual o en cooperación entre dos o más beneficiarios. Los proyectos no podrán contemplar en ningún caso prácticas restrictivas de la competencia, cumpliendo así lo dispuesto en los artículos 85 y 86 del Tratado de la CE.

***Artículo 6.***– Actividades subvencionables.

Podrán acceder a las ayudas reguladas en la presente Orden, las actividades o actuaciones que se materialicen o desarrollen dentro del ejercicio correspondiente a cada convocatoria.

Las actividades subvencionables de I+D+i elegibles serán las siguientes:

a) Estudios de viabilidad previos a proyectos de investigación industrial.

b) Proyectos de investigación industrial.

c) Estudios de viabilidad previos a proyectos de desarrollo experimental.

d) Proyectos de desarrollo experimental.

Dichas actividades incluirán la definición de un plan de trabajo y de un presupuesto para el lanzamiento de la nueva empresa.

A los efectos de la presente Orden, se entiende por Investigación Industrial lo dispuesto en la definición del apartado f) del punto 2.2 del Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación (2006 / C 323/ 01) y por Desarrollo Experimental lo establecido en la definición del apartado g) del punto 2.2 del mencionado Marco Comunitario.

***Artículo 7.***– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a la condición de beneficiarios de las subvenciones contempladas en la presente Orden:

a) Las empresas: grandes Empresas o Pymes. Se entenderá por Pymes las pequeñas y medianas empresas, de acuerdo con la Recomendación de la Comisión de 6 de mayo de 2003, en vigor desde el 1 de enero de 2005, y publicada en el DOUE L 124 del 20-05-2003, las empresas que empleen a menos de 250 personas y cuyo

urteko negozio-bolumenean 50 milioi euroko kopurua edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenak. Orobat, enpresa txikitzat joko dira 50 enplegatu baino gutxiagokoak, eta urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenak. Bi kasuetan, elkartutako edo lotutako enpresak badira, kopuru eta muga horien zenbaketa aipatutako Batzordearen Gomendioaren eranskineko 6. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoaren arabera egingo da.

b) Fundazioak eta enpresa-elkarteak, legezko forma bat edo beste izanik.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareari atxikitako Ikerketa Teknologikorako Erakundeak, horretarako akreditatuak daudenak.

2.– Ez dira onuraduntzat hartuko honako hauek:

a) Administrazio Publikoekin lotura duten edo horien mendekoak diren eta berezko nortasun juridikoa duten Erakunde edo Sozietate Publikoak, ezta Administrazio Instituzionalekoak direnak ere, Administrazio hori edozein izanik ere.

b) Krisialdian dauden enpresak, Erkidegoko Jarraibideetan krisialdian dauden enpresen salbamendurako eta berregituratzerako estatuko laguntzei buruz ematen den definizioaren arabera (Batzordearen komunikazioa, 2004ko urriaren 1eko 2004/C 224/02 EBAOan argitaratua).

3.– Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzeari eutsi egin beharko zaio, emandako diru-laguntza guztia likidatu arte.

***8. artikulua.***– Onuradunen betekizunak.

Onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Onuradun izateko, ezinbestekoa izango da enpresa parte-hartzaileek erantzukizunezko aitorpena egitea, Agindu honen 14. 2. 1. f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Legez kontrakoa eta bateraezina den zerga-laguntzarik jaso ez izana, edo, laguntza bat edo gehiago jaso izanez gero, behar bezala ordaindu izana adierazi behar da aitorpen horretan.

b) Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak garatzea, zuzenean.

c) Proiektuaren gastuetan, gutxienez % 25eko ekarpena egitea.

d) Diruz lagundutako proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoan egon beharko dute gutxienez bost urtez.

e) Onuradunek berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea ezinbestekoa izango da; halaber, diru-laguntza publikoak lortzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin edo beste erakunde publikoren batekin kontratuak egiteko debekuko edo gaitasungabetzeko prozesuren batean sartuta ez egotea ere eskatuko da.

volumen de negocio anual no exceda de 50 millones de euros o cuyo balance general anual no exceda de 43 millones de euros. Asimismo se entenderá por pequeñas empresas las que empleen menos de 50 personas y cuyo volumen de negocios anual o cuyo balance general anual no supere los 10 millones de euros. En ambos supuestos, el cómputo de dichos efectivos y límites en caso de empresas asociadas o vinculadas se efectuará como disponen los apartados 2 y 3 del artículo 6 del anexo de la citada Recomendación de la Comisión.

b) Las fundaciones y asociaciones de empresas, con independencia de cuál sea su forma legal.

c) Las Entidades de Investigación Tecnológica integradas en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación y acreditadas a tal efecto.

2.– No tendrán la consideración de beneficiarios:

a) Las Entidades y Sociedades Públicas con personalidad jurídica propia vinculadas o dependientes de las Administraciones Públicas, así como aquellas pertenecientes a la Administración Institucional, cualquiera que sea la Administración en la que se integren.

b) Las empresas en crisis, de acuerdo con la definición de las Directrices comunitarias sobre ayudas estatales de salvamento y reestructuración de las empresas en crisis (Comunicación de la Comisión publicada en el DOUE 2004/C 224/02, de 1 de octubre de 2004).

3.– Las condiciones para poder acceder a las ayudas habrán de mantenerse hasta la liquidación de la subvención concedida.

***Artículo 8.***– Requisitos de los beneficiarios.

Los beneficiarios deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Será requisito indispensable para ser beneficiario que las empresas participantes presenten una declaración responsable, según lo previsto en el artículo 14. 2. 1.f) de la presente Orden, de no haber accedido a ninguna ayuda fiscal ilegal e incompatible o que en caso de haber accedido a una o más de ellas éstas hayan sido debidamente reembolsadas.

b) Desarrollar directamente las actividades subvencionables.

c) Garantizar una contribución propia a los gastos del proyecto de, al menos, un 25%.

d) Los proyectos subvencionados deberán permanecer en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante un período mínimo de cinco años.

e) Será indispensable que los beneficiarios tengan personalidad jurídica propia y suficiente capacidad de obrar y que no se encuentren incursos en ninguna prohibición o inhabilitación para la obtención de subvenciones públicas o para contratar con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco u otro ente público.

f) Enpresa Handien kasuan -ETEtzat hartuko ez direnak-, onuradun direnek azaldu egin beharko dute I+G+Bko jardueren kopurua handitzean laguntzek izan duten pizgarri-eragina.

g) Zerga-betebeharrak eguneratuak izan beharko dituzte Erakunde Onuradunek.

Hari berari jarraiki, Ogasun eta Finantza Sailburuaren urriaren 7ko Aginduan -Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek, zerga-arloko betebeharrak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa- ezarritako kasuak gertatzen direnean, eskatzailearen esanbidezko baimena izanez gero, zerga-betebeharrak beteta izatearen akreditazio-ziurtagiria zerga-arloan eskudunak diren organo eskudunei zuzenean eskatuko zaie; espedientean baimenik ez badago, eskatzaileek aurkeztu beharko dute ziurtagiri hori.

***9. artikulua.–*** Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen jardueretarako gastuak honako hauek dira:

a) Langileen kostuak (ikerketa-jardueran aritzen diren erakunde eskatzailearen plantillako ikertzaileak, teknikariak eta bestelako laguntzaileak).

b) Kanpoko aholkularitzaren eta antzeko zerbitzuen kostuak (erakunde parte-hartzaileetako plantillakoak ez diren kolaboratzaileak eta proiektuaren espezializazio-maila handiko zatietako azpikontratazioa barne hartuta), betiere ikerketa-jarduerarako soilik eta etengabe erabiltzen badira, eta kanpoko iturrietan erosiak badira, ikerketako eta teknikako ezagutzak barne hartuta.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Eragileak (horretarako akreditatuak direnak) azpikontratatzeko kostuak.

d) Esplotazioko gastuak (materialen gastuak, hornikuntzakoak, bidaienak, etab.), ikerketako jardueraren ondorio baldin badira.

e) Ikerketarako ez beste ezertarako etengabe erabiltzen diren tresnen eta ekipoen kostuak: proiektuak irauten duen bitartean, ikerketarako ez beste ezertarako etengabe erabiltzen diren ekipoen eta tresnen kostuen amortizazioa, doan lortutakoetan izan ezik.

f) a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan aipatu diren eta diru-laguntza jaso dezaketen gastuak, Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruaren 5.1.4 paragrafoan ezarritakoaren arabera interpretatuko dira.

f) Para las Grandes Empresas - y que por tanto no tengan la consideración de-Pymes- beneficiarias deberán explicar el efecto incentivación de las ayudas sobre el aumento neto de sus actividades de I+D+i.

g) Las Entidades Beneficiarias tendrán que estar al corriente de sus obligaciones tributarias.

En relación con este extremo, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que cuente con la autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones; en el supuesto de que no constara en el expediente la citada autorización, son los solicitantes quienes deberán aportar el mencionado certificado.

***Artículo 9.–*** Gastos subvencionables.

Los gastos subvencionables para las actividades subvencionables son:

a) Costes de personal (investigadores, técnicos y otro personal de apoyo empleado en la actividad de investigación perteneciente a la plantilla de la Entidad solicitante).

b) Coste del asesoramiento exterior y servicios equivalentes (incluidos los colaboradores que no pertenezcan al personal de las entidades participantes y la subcontratación de partes del proyecto altamente especializadas) utilizados de forma exclusiva y permanente para la actividad de investigación y adquiridos a fuentes externas, incluidos los conocimientos técnicos y de investigación.

c) Costes de subcontratación a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, acreditados a tal efecto.

d) Gastos de explotación (tales como costes de materiales, suministros, viajes etc.) contraídos directamente como resultado de la actividad de investigación.

e) Costes de instrumentos y equipos utilizados solamente y de forma continua para la actividad de investigación: amortización durante la duración del proyecto de los costes de equipamiento e instrumental utilizados exclusiva y permanentemente para la actividad investigadora, salvo en los supuestos en que su obtención se haya realizado mediante cesión a título gratuito.

f) Los gastos subvencionables mencionados en los apartados anteriores a), b), c), d) y e) serán interpretados de acuerdo con lo establecido en el apartado 5.1.4 del Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación.

***10. artikulua.–*** Laguntza mota, laguntzak emateko prozedura eta mugak.

1.– Emango diren laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira eta urtekoak izango dira.

2.– Hautatuak izateko eskaturiko guztia betetzen duten eskaerek izango dute diru-laguntza jasotzeko aukera, agindu honen 17.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Proiektu bakoitzari eman beharreko diru-laguntza kalkulatzeko, 3. paragrafoan aurreikusitako gehienezko laguntza-intentsitatea aplikatuko zaio onarturiko proiektu bakoitzerako onartu den eta diru-laguntza jaso dezaketen gastuak biltzen dituen aurrekontuari.

Deialdia finantzatzeko bideraturiko zuzkidura ekonomiko orokorra nahikoa ez bada eskaera guztiei erantzuteko aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, diru-laguntzetarako gehienezko zenbateko orokorra onuradunen artean hainbanatuko da.

3.– Onuradun bakoitzari I+G+Bko jardueretarako eman beharreko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen mugak honako ehuneko hauen arabera zehaztuko dira, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen aurrekontu onartuak aintzat hartuta:

a) Lankidetzan jarduten duten enpresen proiektuetarako:

***Artículo 10.–*** Naturaleza, procedimiento de concesión y límites de las Ayudas.

1.– Las ayudas a conceder tendrán la naturaleza de subvenciones no reintegrables y tendrán carácter anual.

2.– Podrán obtener subvención aquellas solicitudes que cumplan lo exigido para ser seleccionadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 17.3 de la presente Orden.

La subvención a conceder a cada proyecto será la resultante de aplicar la intensidad máxima de ayuda prevista en el siguiente apartado 3 sobre el presupuesto de gastos subvencionables aceptado para cada uno de los proyectos aprobados.

Si la dotación económica global destinada a la financiación de la convocatoria no alcanzara para atender todas las solicitudes en los términos establecidos en el párrafo anterior, se procederá al prorrateo entre los beneficiarios del importe global máximo destinado a las subvenciones.

3.– Los límites de las ayudas a las subvenciones no reintegrables, a conceder a cada beneficiario, para las actividades de I+D+i podrán alcanzar, sobre los presupuestos de gastos subvencionables aprobados, hasta los máximos de los porcentajes siguientes:

a) Para Proyectos de empresas en cooperación:

| Laguntzaren intentsitatea | Enpresa Txikia | Enpresa Ertaina | Enpresa Handia |
|---|---|---|---|
| Oinarrizkoa | % 25 | % 25 | % 25 |
| Prima (Erkidegoko Esparruko 5.1.3.a) artikulua) | % 20 | % 10 | % 0 |
| Prima (Erkidegoko Esparruko 5.1.3.b.i) artikulua) | % 5 | % 15 | % 15 |
| Gehienezko intentsitateak | % 50 | % 50 | % 40 |

| *Intensidad Ayuda* | *Pequeña Empresa* | *Mediana Empresa* | *Gran Empresa* |
|---|---|---|---|
| *Básica* | *25%* | *25%* | *25%* |
| *Prima (Art.5.1.3.a) del Marco Comunitario)* | *20%* | *10%* | *0%* |
| *Prima (Art.5.1.3.b.i) del Marco Comunitario)* | *5%* | *15%* | *15%* |
| *Intensidades máximas* | *50%* | *50%* | *40%* |

Gainera, gutxienez bi enpresaren arteko lankidetza eskatzen duten proiektu horiek Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko esparruaren 5.1.3.b)i) idatz-zatian adierazitakoa beteko dute, honako baldintza hauek betez:

* ezein enpresak ezin izango du lankidetza-proiektuen kostuen (diru-laguntza jaso dezaketenak) % 70 baino gehiago ordainduko;

Además, estos proyectos en cooperación entre al menos dos empresas cumplirán con lo señalado en el apartado 5.1.3.b.i) del Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación, que establece las siguientes condiciones:

* Ninguna empresa debe correr por si sola con más del 70% de los costes subvencionables del proyecto de colaboración.

* proiektuak gutxienez ETE baten laguntza eduki beharko du, edo lankidetzak mugaz haraindikoa izan beharko du, hau da, ikerketaren eta garapenaren jarduerak gutxienez bi Estatu kideren artean gauzatzen direnean.

b) Enpresa Proiektu indibidualetarako:

* El proyecto debe contar con la colaboración de al menos una Pyme o la colaboración debe ser transfronteriza, esto es, cuando las actividades de investigación y desarrollo se lleven a cabo al menos en dos Estados miembros.

b) Para Proyectos empresariales individuales:

| Laguntzaren intentsitatea | Enpresa Txikia | Enpresa Ertaina | Enpresa Handia |
|---|---|---|---|
| Oinarrizkoa | % 25 | % 25 | % 25 |
| Prima (Erkidegoko Esparruko 5.1.3.a) artikulua) | % 15 | % 10 | % 0 |
| Gehienezko intentsitateak | % 40 | % 35 | % 25 |

| Intensidad Ayuda | Pequeña Empresa | Mediana Empresa | Gran Empresa |
|---|---|---|---|
| Básica | 25% | 25% | 25% |
| Prima (Art.5.1.3.a) del Marco Comunitario) | 15% | 10% | 0% |
| Intensidades máximas | 40% | 35% | 25% |

c) Edozein kasutan, proiektua lankidetzazkoa izan edo indibiduala izan, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa 250.000 eurokoa izango da, onuradun bakoitzeko eta urteko.

4.– Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen gehienezko zenbatekoari dagokionez (250.000 euro), urteko deialdian egunera daiteke, KPIaren gorabeherak aintzat hartzearren, baina mugak handitzeagatik, inola ere ezin izango dira handitu laguntzen gehienezko intentsitateak proiektu mota guztietan, ETEen Erkidegoko Esparruaren eta Araudiaren arabera, hurrenez hurren.

***11. artikulua.***– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetako laguntzak eskuratzen dituzten onuradunek beste laguntza batzuk ere eskuratu ahal izango dituzte jarduera horiek burutzeko, laguntza horien izaera edo laguntzak ematen dituen administrazioa edozein izanik ere. Onuradun bakoitzak jasoko dituen laguntzen guztizkoa jakin ondoren, Agindu honetan ezarritakoa betez onuradun horrek jaso ahal izango dituen laguntzak zehazteko, horri buruz Europar Batasunean indarrean dauden arauak hartuko dira kontuan, eta zehazkiago, Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatu Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruan ezarritakoa.

2.– Proiektu berari emandako diru-laguntzen zenbatekoak (laguntza bakoitzarenak edota beste diru-laguntzekin batera) ezin izango ditu gainditu, inolaz ere,

c) En cualquier caso (proyectos en cooperación o individuales), el montante máximo de la subvención no reintegrable será de 250.000 euros por beneficiario y año.

4.– En cuanto a la cuantía del montante máximo citado de 250.000 euros para subvenciones no reintegrables, podrá ser actualizada en la convocatoria anual, con el objeto de tener en consideración las variaciones en el IPC, sin que en ningún caso el incremento de dichos límites suponga un incremento de la intensidad máxima de ayuda para los diferentes tipos de proyectos de acuerdo con el Marco Comunitario y Reglamento de Pymes, respectivamente.

***Artículo 11.***– Concurrencia con otras ayudas.

1.– Las actuaciones de los beneficiarios que se acojan a las ayudas establecidas en esta norma podrán recibir otras ayudas, cualesquiera que sea su naturaleza y el órgano o Administración que las conceda. Una vez conocido el total de las ayudas a recibir por cada beneficiario, para la determinación de las ayudas que el mismo pueda percibir en virtud de lo establecido en esta Orden, se tendrán en cuenta las normas que al respecto se encuentren vigentes en la Unión Europea, y, en particular, a lo establecido en el Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación.

2.– El importe de las ayudas y subvenciones concedidas al mismo proyecto en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras

aurreko idatz-zatiko jardueren kostua edo mugak, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari diru-laguntza horien berri eman beharko diote onuradunek. Kasu horietan, gehiegizko kopurua kenduko zaie agindu hau betez emandako laguntzei.

***12. artikulua.***– Laguntzen kontrola.

1.– Ondorengo kontrolari dagokionez, aipatzekoa da laguntza-programa honen kudeaketaren ardura duten agintariek I+G+Bko Erkidegoko Esparruan ezarritako betekizunak zorrotz errespetatu eta betetzeko konpromisoa hartu dutela (2006-12-30eko EBAOaren C 323).

2.– Orobat, I+G+Bko Erkidegoko Esparru horren 10.1.1 puntuan ezarritakoaren arabera, agintari arduradunek txosten bat egingo dute urtero; txosten horretan, laguntza-erregimen honen aplikazioa eta garapena zehaztuko da, eta laguntzaren sustapen-ondorioa esanbidez azaldu beharko da. Burututako ikerketako eta garapeneko jarduera gehigarrien inguruan, enpresa handiek aurkeztutako txostenak ere barne hartuko dira urteroko txosten horretan.

3.– Gainera, programa honetan, laguntzen eragin pizgarria bermatzeko, laguntza horien eskaerak aurkezteko epea ireki baino geroago hasitako proiektuek soilik lortu ahal izango dituzte laguntza horiek.

4.– Bestetik, laguntza-programa horren ardura duten agintariek Batzordeari jakinaraziko diote Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruko 7.1 puntuan ezarritako kasuistikak eraginpean hartuko duen ikerketa-proiektu indibidual oro.

***13. artikulua.***– Deialdia.

1.– Agindu honetan arautatako diru-laguntzak urtean behin egingo den deialdiaren bidez iragarriko dira eta publizitate-, lehiatze- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz emango dira.

2.– Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpenaren bitartez egingo da deialdia, eta ekitaldi horretan diru-laguntzak emateko aurrekontu-esleipenen zenbatekoa beharrezkoa izango da, baita eskaerak aurkezteko epea eta tokia ere.

***14. artikulua.***– Eskaerak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerak eta gainerako dokumentazio osagarria Teknologiako Zuzendaritzara igorriko dira, eta urteko deialdi-ebazpenean edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan aurkeztuko dira.

2.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eskaeraren eta formularioen eredu posible bat eskainiko

subvenciones, sobrepasen el coste de la actividad o los límites del apartado anterior, estando obligados los beneficiarios a comunicar las mismas al Departamento de Industria, Comercio y Turismo. En estos casos las ayudas concedidas en virtud de esta Orden se minorarían en la cantidad correspondiente al exceso.

***Artículo 12.***– Control de las ayudas.

1.– En relación al control a posteriori señalar que las autoridades responsables de la gestión de este programa de ayudas, se comprometen a respetar y cumplir escrupulosamente los requisitos establecidos en el Marco Comunitario de I+D+i (C 323 del DOUE de 30-12-2006).

2.– Asimismo, según lo establecido en el punto 10.1.1 del mencionado Marco Comunitario de I+D+i, las autoridades responsables elaborarán un informe de carácter anual donde se detalle la aplicación y desarrollo del presente régimen de ayudas, y en el que se recoja de manera explícita el efecto incentivador de la ayuda. También, en dicho informe anual, se incluirá los informes presentados por las grandes empresas sobre actividades de investigación y desarrollo adicionales emprendidas.

3.– Además, en este programa, para garantizar el efecto incentivador de la ayuda sólo podrán acogerse a las mismas los proyectos que se inicien con posterioridad a la apertura de la fecha de las solicitudes de ayuda.

4.– Por otra parte, las autoridades responsables de este programa de ayudas realizarán la notificación a la Comisión de cualquier proyecto de investigación individual que quede afectado por la casuística establecida en el punto 7.1 del Marco Comunitario sobre Ayudas Estatales de Investigación y Desarrollo e Innovación.

***Artículo 13.***– Convocatoria.

1.– Las subvenciones reguladas por esta orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

2.– La convocatoria se realizará mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial y precisará el importe de las consignaciones presupuestarias destinadas para el otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, así como el plazo y lugar para la presentación de las solicitudes.

***Artículo 14.***– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden se dirigirán a la Dirección de Tecnología y se presentarán en los lugares especificados en la resolución de convocatoria anual o en los del artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Un posible modelo de solicitud y de formularios será facilitado por el Departamento de Industria, Co-

du, edo bestela https://www.spri.es/idi/idi web-orrian eskura daitezke eredu horiek, laguntzen deialdia egindakoan Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

3.– Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da proiektu bakoitzeko:

a) Eskabide-orria, enpresaren informazio orokorra eta guzti.

b) Enpresaren jarduerari buruzko oinarrizko datuen deskribapen-memoria.

c) Ikerketa Proiektuaren deskribapen memoria, azpikontratatu beharreko jarduerak, enpresak eta zenbatekoak zehaztuz.

d) Eskatzailearen ordezkaritza-ahalordearen kopia.

e) Honako datu hauek egiazkoak direla aitortzen duen zinpeko aitorpena; aitorpen horri indarreko zigor-erregimena ezarriko zaio, bai administrazio-arlokoa, baita penala ere:

– Zerga-betebeharrak bete dituela. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako edo haren ordezko araudiko diru-laguntzen erakunde onuradunen zerga-betebeharrak egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak, betiere eskatzailearen esanbidezko baimena badu, laguntzen eta diru-laguntzen eskatzaileen zerga-betebeharrak bete izanaren egiaztagiria eskatuko die zuzenean zerga-arloko organo eskudunei. Espedientean baimen hori jasota ez badago, laguntzen eskatzaileak dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

